JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

6783

AGINDUA, 2008ko azaroaren 17koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, «Fundación Popular de Estudios Vascos» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen duena.

Bilboko (Bizkaia) «Fundación Popular de Estudios Vascos» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK:

1.– Antonio Damborenea Basterrechea, Esther Martínez Fernández, Carlos Olazabal Estecha eta Arturo Aldecoa Ruizek «Fundación Popular de Estudios Vascos» izeneko fundazioa eratu zuten horretarako emandako eskritura-publikoaren bidez. Eskritura Bilboko notarioa den Javier Vinader Carracedo jaunak eman zuen, 2008ko urriaren 23an (bere protokoloan 1.157 zenbakia dauka).

Eratzeko eskritura publikoak, gainera, Carlos Olazabal Estecha jaunari fundazioaren patronatuak emandako ahalordetza jasotzen du, bertan jasotako eskumen eta hedapenarekin.

2.– «Fundación Popular de Estudios Vascos» fundazioaren xedea estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

«Fundación Popular de Estudios Vascos» irabazte xederik gabeko erakundea da eta bere xedeak, besteak beste, euskal gizartean esparru kultural eta sozialean jarduerak egin eta bultzatzea, mota guztietako gizarte-kultura ekimenak sustatuz. Sustatu egingo ditu, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan pentsamendu politiko, sozial eta kulturala aztertu eta garatzeko jarduerak.

Euskal gizartearen iragan, orain eta geroari buruzko mota guztietako azterlan eta ikerketak sustatu, garatu eta bultzatzeari arreta berezia emango die, historia, kultura, ekonomia eta gizartearen ikuspuntutik. Horretarako honako bideak erabiliko ditu: argitalpenak editatzea eta jarduerak antolatzea, horien artean, lehiaketak, kongresuak, beken sustapena, laguntzak edo sariak, eta trebakuntzak, eta baita bere dituen helburuak betetzeko egin daitekeen beste edozein ere.

Fundazioaren xedeak betetzeko, ekonomia baliabideek bidea ematen duten neurrian eta Patronatuko Batzordeak onartzen dituen programa zehatzei jarraituz, honakoak izango dira fundazioak buruko dituen jarduerak, fundazioaren xedeari lotutakoak betiere:

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

6783

ORDEN de 17 de noviembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por, la que se inscribe en el registro de fundaciones del País Vasco la denominada Fundación Popular de Estudios Vascos.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Fundación Popular de Estudios Vascos, de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO:

1.– Por D. Antonio Damborenea Basterrechea, Dña. Esther Martínez Fernández, D. Carlos Olazabal Estecha y D. Arturo Aldecoa Ruiz se ha constituido la Fundación denominada Fundación Popular de Estudios Vascos, mediante Escritura pública de constitución otorgada el 23 de octubre de 2008, ante el Notario de Bilbao, D. Javier Vinader Carracedo, número 1.157 de su protocolo.

La Escritura pública de constitución recoge asimismo el apoderamiento otorgado por el Patronato de la Fundación a favor de D. Carlos Olazabal Estecha, con las facultades y extensión recogidos en la misma.

2.– El fin fundacional de la denominada Fundación Popular de Estudios Vascos, viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

La Fundación Popular de Estudios Vascos se configura como una entidad sin ánimo de lucro que persigue, como objetivo promover, realizar, apoyar y satisfacer las necesidades de carácter cultural y social existentes en la sociedad vasca, fomentando para ello todo tipo de iniciativas socio-culturales; así como aquellas actividades de estudio y desarrollo del pensamiento político, social y cultural en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se prestará específica atención a la promoción, desarrollo y fomento de toda clase de estudios e investigaciones sobre el pasado, presente y futuro de la sociedad vasca, desde el punto de vista histórico, cultura, económico y social. Para ello se instrumentalizará la edición de publicaciones, la organización de actividades, entre las que se encontrarán los concursos, congresos, la promoción de becas, ayudas o premios, y la formación así como cualquiera otra que puedan ser conducentes a la realización de sus finalidades propias.

Para el cumplimiento de estos fines fundacionales, la Fundación desarrollará, en la medida de que sus medios económicos lo permitan, y de acuerdo con los programas concretos que en cada caso apruebe su Junta de Patronato, las siguientes actividades todas ellas destinadas a su fin fundacional:

– Azterlan eta ikerketetarako laguntzak ematea.

– Kongresuak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, urteurren historikoak eta baita kultura, heziketa eta humanismo alorreko beste ekintza batzuk ere antolatu eta finantzatzea.

– Erakusketa edo emanaldi monografikoak egitea.

– Artikulu, liburu, aldizkari, liburuxka, bideo, filma, CD, DVD eta irudi eta soinuzko edozein euskarri antolatu, gauzatu, editatu eta zabaltzea, fundazioaren xedeak garatzeko.

– Fundazioaren xedea ahalik eta ondoen gauzatzeko elkarte edo fundazioak sortzea edo, hala badagokio, horietan parte hartzea.

– Ikerketak eta azterlanak egitea.

– Euskal Herriaren historia berreraikitzeko lagun dezaketen dokumentuak edo aztarna hunkiberak batzea.

– Bere gizarte-ingurunean sortu eta fundazioaren xedearekin zerikusia izan dezaketen jarduerak bideratu eta sustatzea.

– Bere ikerketa eta azterlanen emaitzak argitaratzea.

– Egunkari, liburu, entsegu, irrati, telebistan eta, oro har, informazio eta zabalkunderako edozein bidetan, egindako lanei eta baita fundazioaren xedearekin zerikusia duen edozein bizitza-alorretan egindako lan emankorragatik nabarmendu diren pertsona edo instituzioei ere sariak eta beste finantza-bideak ematea.

– Fundazioaren xedea betetzeko Patronatuko Batzordeak komenigarritzat jotzen duen beste edozein jarduera.

3.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikuluan adierazten denez, hau da: Kale Nagusia, 89, 5. solairua, Bilbao.

4.– Hasierako dotazioa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikuluak.

Ondare-dotazioa egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera. Azken xedapenetatik lehenengoari jarraituz aplikatuko da artikulu hori.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 12. artikuluan jartzen duen moduan.

– Conceder ayudas de estudios e investigación.

– Organizar y financiar congresos, cursos, seminarios, conferencias, aniversarios históricos, así como otros actos de tipo cultural, formativo y humanista.

– Realizar exposiciones o exhibiciones monográficas.

– Preparar, elaborar, editar y difundir artículos, libros, revistas, folletos, vídeos, filmes, CDs, DVD, y cualquier soporte de imagen y/o sonido en orden y desarrollo de los fines de la Fundación.

– Crear o, en su caso, participar en asociaciones o fundaciones filiales que contribuyan a una mejor realización del fin fundacional.

– Realizar trabajos de investigación y estudio.

– Recopilar vestigios de valor documental o sentimental que ayuden a la reconstrucción de la historia del Pueblo Vasco.

– Canalizar y promocionar las actividades que puedan ir surgiendo en su entorno social y que tuvieran relación con el objeto de la Fundación.

– Publicar resultados de sus trabajos de investigación y estudio.

– Conceder premios y otras formas de financiación a labores desarrolladas en periódicos, libros, ensayos, radio, televisión y en general, en cualquier medio de información y difusión, así como a aquellas personas o instituciones que hayan destacado por su fructífera labor en cualquier campo de la vida que tuviera relación con el objeto de la Fundación.

– Cualesquiera otras actividades que la Junta de Patronato considere conveniente para cumplir el fin fundacional.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en Bilbao, calle Gran Vía, 89-5.º.

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil euros (30.000), cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 12 de los Estatutos fundacionales.

6.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, hauek izango dira patronatuko kide:

Lehendakaria:	Antonio Damborenea Basterrechea jauna, Bizkaiko Popular Alderdiko lehendakaria
Lehendakariordea:	Esther Martínez Fernández andrea, Bizkaiko Popular Alderdiko idazkari nagusia
Diruzaina:	Arturo Aldecoa Ruiz jauna Bizkaiko Popular Alderdiko gerentea
Bokala:	Carlos Olazabal Estecha
Idazkari ez patronoa:	Fidel Uriarte Pérez jauna

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago aginduta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por,

Presidente:	*Presidente del Partido Popular de Vizcaya, D. Antonio Damborenea Basterrechea*
Vicepresidente:	*Secretario General del Partido Popular de Vizcaya, Dña. Esther Martínez Fernández*
Tesorero:	*Gerente del Partido Popular de Vizcaya, D. Arturo Aldecoa Ruiz*
Vocal:	*D. Carlos Olazabal Estecha*
Secretario, no patrono:	*D. Fidel Uriarte Pérez*

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO:

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por

100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-232 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) «Fundación Popular de Estudios Vascos» delakoa eta patronatuko hasierako osaera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agindua ematea. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek berariaz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan agindutakoaz bat etorriz.

Hirugarrena.– Patronatuak Carlos Olazabal Estecha jaunari emandako ahalordetza, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatzeko agindua ematea, bertan jasotako ahalmen eta hedapenarekin.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 17a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-232, de la constitución de la denominada Fundación Popular de Estudios Vascos, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco del apoderamiento otorgado por el Patronato a favor de D. Carlos Olazabal Estecha, con las facultades y extensión recogidos en la misma.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de noviembre de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.